

Topalekua

88 zk. 2015eko uztaila

julio 2015 - n.º 88

1-4. orr.: *Gizarte-Kontseiluak UPV/EHU-ko 2014ko ekitaldiko kontuak onetsi ditu*

2-3. orr.: *CYD fundazioaren txostena: euskadin graduatu gehiago eta tituludun langabe gutxiago daude, baina sinatzen diren kontratuen %37 trebakuntza-maila txikikoak dira*

3. orr.: *Euskadik lortu ditu «Europa 2020» estrategiaren helburuak, hezkuntzaren arloan*

4. orr.: *Orkestra-ren txostena: enplegua, berrikuntza eta ekintzailtza, euskal enpresen lehiakortasuna bultzatzeko*

GIZARTE-KONTSEILUAK UPV/EHU-ko 2014ko EKITALDIKO KONTUAK ONETSI DITU

Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak uztailaren 22an egin zuen bileran onetsi zituen UPV/EHUren 2014ko aurrekontuaren kontabilitate-egoerak. Ekitaldi horretan, Unibertsitate Publikoaren behin betiko kreditua 514.800.000 eurokoa izan zen, eta ekitaldiaren amaieran, 625.000 euroko superabita zuen. Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitateak ekonomiari eta finantzei buruzko informazio hori jakinarazi zion Unibertsitateko gobernu-organoari, herritarrei kontuak aurkezteko prozesuaren testuinguruan.

Horrez gain, oso bilkurak aztertu zuen Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren deialdiaren bidez emandako sei lankidetzabekabanatzeko modua. Horren harira, kontuan hartu zuen Eusko Jaurlaritzak onartu dituen ikerketa-taldeen puntu-sailkapena, eta bekak 80 puntutik gora dituzten zenbait sailari esleitzearabaki zuen. Hona hemen esleipena jasoduten sailak: Kimika Organikoa I Saila; Komunikazioen Ingeniaritza Saila; Neurozientziak Saila; Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia Saila; Ekonomi Analisaren Oinarriak I Saila; Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila. Horrekin batera, Kontseiluak erabaki zuen, sail horietako batean izangairik ez balego, hutsik geratuko litzatekeen lankidetzabeka eskatzaileen artean nota altuena

duen ikasleari ematea. Izan ere, horrela jokatuko da, deialdiaren beka guztiak banatu arte.

Bestalde, osoko bilkuraren bilera berean, UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak finkatu zituen 34 berezko ikasketa-ikastaroren prezioak; haietako 15 master-ikastaro dira. Hona hemen ikastarook:

- Comunicación Corporativa
- Construcción Sostenible y Eficiencia Energética
- Nazioarteko Lankidetzaz Ez Zentralizatua
- Cooperación Internacional y Educación Emancipadora
- Derecho Ambiental
- Derecho del Comercio Internacional
- Dirección y Gestión de Empresas
- Dolor Orofacial y Transtornos Temporomandibulares
- Emprendimiento e3
- Gestión para la competitividad empresarial
- Igualdad de Mujeres y Hombres
- Innovación Social
- Marketing y Dirección Comercial
- Patología Oral
- Tecnología Aeronáutica

CYD FUNDAZIOAREN TXOSTENA: EUSKADIN GRADUATU GEHIAGO ETA TITULUDUN LANGABE GUTXIAGO DAUDE, BAINA SINATZEN DIREN KONTRATUEN %37 TREBAKUNTZA-MAILA TXIKIKOAK DIRA


2014an, 25 eta 64 urte bitarteko euskal herritarren %36,6k goi-mailako gradu-ikasketak zituzten; hortaz, Espainiako estatuko batez bestekoa baino 1,5 puntu handiagoa zen Euskadikoa. Bestalde, EB-ko tituludunen kopuruaren arabera, hamargarren posizioan zegoen Espainia. Denbora-tarte berean, Euskadiko langabe gradudunen tasa %10,8koa zen, hots, 16 eta 64 urte bitarteko espainiar herritarren ehunekoa baino 5,4 puntu txikiagoa; eta Estatu osoko tasa txikienekin erkatuta, bosgarrena zen (Nafarroa: %8,3; Madril: %10,0; Balearrak: %10,0; Errioxa: %10,5). Hala eta guztiz

ere, gradudunek sinatu zituzten kontratuen %36,9 trebakuntza-maila txikikoak ziren. Horiek dira, hain zuen, CYD Fundazioaren 2014ko Txostenak jakinarazi dituen datu batzuk. Txosten horrek berretsi du gainpresakuntza egitura-arazo bihurtu dela.

Txosten horretan honako datu hauek ere azpimarratu dira:

- Pertsona helduen %22k soilik zituzten hirugarren mailakoak ez ziren derrigorrezko ondorengo ikasketak (EBn, bigarren balio txikiena da hori, Portugalen

UNIBERTSITATE-GRADUDUNEK SINATU DITUZTEN KONTRATUAK



Iturria: CYD-k egin du, SEPEk emandako datuekin

- atzetik). Gehienez ere, %42,9k derrigorrezko ikasketak zituzten (EBn, hirugarren balio handiena da hori, Malta eta Portugal herrialdeen atzetik).
- 2014an, populazio-multzo osoaren enplegu-tasa baino handiagoa izan zen goi-mailako espainiar gradudunena (%63,5, eta bestea %77,8); eta langabezia-tasa txikiagoa izan zen (%21,8; bestea %13,4; laugarren hiruherreko datuekin erkatuta). Krisialdian, Europako Batasunak baino bilakaera okerragoa izan zuen Espainiak: 2013an, EBko goi-mailako gradudunen enplegu-tasa baino zazpi puntu txikiagoa zen Espainiakoa. 2007an, ordea, enplegu-tasa hori antzekoa zen Espainian eta Europar Batasunean. Bestalde, langabezia-tasa %15 ingurukoa izan zen, eta EBkoa

%5,8. 2007an, ordea, bion arteko aldea puntu batekoa zen, gutxi gorabehera.

- Geroago, 2014an, hobekuntza handiagoa jaso zen Espainian: langabezia-tasak ia puntu bat eta erdi egin zuen behera, eta enplegu-tasak puntu bat baino gehiago egin zuen gora. EBko tasek, ordea, bi eta lau hamarren egin zuten gora, hurrenez hurren.
- Populazio osoarekin erkatuta, Espainiako gradudun gutxiagok lan egiten zuten denbora partzialen (%14,9 eta %12,6; 2014ko datuekin erkatuta) eta behin-behineko lanpostuen tasa ere txikiagoa zen (%22 eta %19,2, hurrenez hurren). EBko datuekin erkatuta, Espainian aldi baterako lanpostuen tasa handiagoa zen, eta denbora partzialeko lanpostuen tasa txikiagoa.


Goi-mailako gradudunen diru-sarrerak populazio osoarenak baino handiagoak ziren: hileko ordainsari gordina 2.402 €-koa zen, batez beste; eta bestea 1.869 eurokoa, 2013ko datuen arabera.

- 2014an, prestakuntza handieneko populazioa Madrilen zegoen (16 edo urte gehiagoko 10 pertsonatik 4 goi-mailako gradudunak ziren). Euskal Herria bigarren posizioan zegoen, eta tasa %36,6koa zen. Nafarroa, hirugarrenean: %33,7.
- 2014an, Espainiako eskualde guztietan –Asturiasen eta Kanarietan izan ezik–, behera egin zuen goi-mailako gradudunen langabezia-tasak, 2013ko tasarekin erkatuta (laugarren hiruhilekoko datuen arabera). Madrilen, Gaztela eta Leonen, Balearretan eta Errioxan 2,5 puntukoa edo handiagoa izan zen beherakada hori. Langabezia-tasa txikienak Nafarroan (%8,3), Madrilen (%10) eta Balearretan (%10) jaso ziren; eta tasa handienak Andaluzian (%21,2) eta Kanarietan (%22,5).

Gainprestakuntzaren arazoa

Hauxe nabarmentzen du txostenak, enpleguaren eskaintza eta eskaera eta langileen gainprestakuntza-maila aztertzeko atalean:

- 2014an, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren (SEPE) enplegu-eskaintzen %15,7 trebakuntza handiko lanpostuak izan ziren, eta tasa hori %31,8 handiagoa zen, 2013ko tasarekin erkatuta.
- Urte berean, Extremaduran eta Kanarietan gertatu ziren desoreka txikienak, goi-mailako trebakuntza eskatzen zuten lanpostuen guztizkoan. Aldiz, Madrilen, EAEn, Valentziako Erkidegoan eta Gaztela eta Leonen behatu ziren desoreka handienak.
- Espainian, 2014an, unibertsitate-gradudunekin sinatu ziren hasierako kontratuen %33,1 trebakuntza txikiko lanei buruzkoak ziren. 2010etik, etengabe egin du gora gainprestakuntzaren zifrak. Sinatu ziren kontratu guztietatik ia lau kontratutan eskatzen zuten kontabilitateko langilea, administratzailea, ostalaritza-zerbitzuko langilea, zerbitzu pertsonalak egiteko langilea, babes-arlokoa edo saltzailea. Eta kontratuen %6,7 (90.000 kontratu baino gehiago, kopuru absolutuetan) oinarritzko lanak egiteko sinatu ziren, beraz, ez zen beharrezkoa aldeztu aurretiko prestakuntzarik izatea.
- Euskadin sinatu ziren kontratuen %36,9k gainprestakuntzaren arazoa erakusten zuten; Katalunian, ordea, kopuru hori %30 baino txikiagoa zen; eta Gaztela eta Leonen, Errioxan eta Aragoian %40 baino handiagoa.



Iturria: berezko elaborazioa da, eta CYD Fundazioaren eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren datuak erabili ditugu

- 2014an, Espainiako goi-mailako hezkuntzako tituludun langileen %37k trebakuntza txikiko lanak egiten zituzten; horixe da, hain zuten, EBko herrialde guztietako tasarik handiena.
- Gainprestakuntzaren arazoaren muina hauxe da: Espainian dauden goi-mailako tituludun pertsona helduen kopurua baino txikiagoa da Espainian sortzen diren trebakuntza handiko lanpostuak (pertsona horiek bete litzaketanak).

2013-2014ko Ikasturtean, UPV/EHU lehengo posizioan zegoen, ikasle bakoitzeko gastu arruntei eta langile-gastuei dagokienez

CYD-ren Txostenaren arabera, 2013-2014ko ikasturtean, Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea zen ikasle bakoitzeko gastu arrunt handiena egiten zuen goi-mailako unibertsitate publikoa (9.312 euro); halaber, irakasle eta ikertzaile bakoitzeko nahiz AZLko langile bakoitzeko gastu arrunt handiena (55.893 euro) egiten zuena ere bazen. Aldi berean, tasen bidezko diru-sarreraren kopuru txikiena jaso zuten unibertsitateetako bat izan zen (1.099 euro ikasle bakoitzeko), eta ikasle bakoitzeko inbertsio txikiena egin zutenetakoa ere izan zen (991 euro errealeko ikasle bakoitzeko).

EUSKADIK LORTU DITU «EUROPA 2020» ESTRATEGIAREN HELBURUAK, HEZKUNTZAREN ARLOAN

Euskal Autonomia Erkidegoan lortu dira EBko «Europa 2020» estrategian aurreikusi ziren hezkuntza-helburuak. Estrategia horretan, oinarritzko adierazle-sorta bat ezarrita dago, hazkunde zentzuduna, iraunkorra eta integratzailea lortzeko.

Hezkuntza-arloan, estrategia horrek honako helburu hau ezarri zien EBko 28 herrialdeei: 2020an, eskola uzteko tasa %10etik beherakoa izatea eta goi-mailako ikasketak dituzten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehunekoa %40 baino handiagoa izatea. Helburu biak soberan bete dira Euskadin, 2014an. Halaxe diote

Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) eman dituen datuek.

Izan ere, iaz, eskola uzteko tasa %7,2 baino txikiagoa izan zen EAEn, europar indizea baino ia 4 puntu txikiagoa, eta xede-indizea baino hobe, zehazki, %2,8 txikiagoa. Bigarren indizeari dagokionez, Euskal Herrian, 2014an, goi-mailako ikasketak zituzten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehunekoa %48,9ra iritsi zen, beraz, ia 2020ko xede-indizea baino 9 puntu handiagoa da, eta EBko 28 herrialde guztietako batez bestekoa baino 11 puntu handiagoa.

Eta unibertsitate-espezialista izateko 19 ikastaro:

- Agroekologia Trantsiziorako gure bideak lantzen
- Análisis de la Geoinformación
- Asistencia a las Víctimas de Experiencias Traumáticas
- Auditoria de Cuentas
- Auditoria y Consultoria Socio Laboral
- Diseño de Moda
- Estética Dental Integrada
- Gestión Patrimonial y Banca Privada
- Hizkuntza Plangintza
- Hondakinen Kudeaketa eta Tratamenduak
- Implantología Oral y Microcirugía
- Enpresa Arloan Nazioartekotzea
- International Election Observation and Electoral Assistance
- Itzulpengintza eta Teknologia
- Máquina Herramienta y Procesos Avanzados de Fabricación
- Medio Ambiente y Sostenibilidad
- Mendizaletasuna, Mendi Jardueren Ikasketak
- Proposamena: Detective Privado
- Zergak

Gainera, Kontseiluak erabaki zuen ikasketa osagarrien 8 ikastaroren prezioak ere ezartzea. Ikastaro horiek aldez aurretik onartu zituen UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak. Hona hemen ikastarook:

- Prestakuntza eguneratzea I
- Prestakuntza eguneratzea II
- Alderdi juridikoak
- CAE. Elementu finitoak
- Justizia Konpontzailea
- Kudeaketa Sistemak
- Ordenagailuz lagunduriko diseinu eta fabrikazio ingeniari-tza
- Atención a la diferencia

UPV/EHUk HEGAN elkartean parte hartzea

Osoko Bilkurak, halaber, onartu zuen UPV/EHUk Euskadiko Aeronautika eta Espazioko Kluster Elkartean (HEGAN) parte hartzea. Industria-, lanbide-, teknologia- eta ikerketa-sare baten garapena bultzatzea da elkartearen xedea. Sare horrek gai izan behar du nazioarteko eta nazioko aeronautika-merkatuan lehiatzeko. Horrez gain, parte hartzen duten agenteak koordinatu nahi ditu, azpisektorea nazioartean aintzat har dezaten. Horrekin guztiarekin batera, EAEko ekonomia eta zientzia- eta teknika-garapena indartu, eta lanpostu espezializatuak sortu nahi ditu.

Bilera berean, osoko bilkurak onartu zituen aurrekontu-aldaketa batzuk, bai eta Gizarte Kontseiluaren beraren finantzaketa-informazioaren egoerak, 2015eko lehenengo seihilekoari buruzkoak, ere.


ORKESTRA-REN TXOSTENA: ENPLEGUA, BERRIKUNTZA ETA EKINTZAILETZA, EUSKAL ENPRESEN LEHIAKORTASUNA BULTZATZEKO

Orkestra Institutuak Euskal Autonomia Erkidegoari buruz egin duen 2015eko txostenaren arabera, honako hauek dira hurrengo urteetan euskal ekonomian izango ditugun erroka batzuk: enplegua sortzea, berrikuntza-sistemaren eraginkortasuna hobetzea, I+G+b azpiegituren eta enpresen arteko elkarrenergina areagotzea eta ekintzaiiletza-prozesuei laguntzea.

Txostenak azpimarratzen du EAEko enpresen egoera egoki samarra dela ekonomiari buruzko adierazleek iradokitzen dituzten aurreikuspen onak baliatzeko, betiere, lehiakortasunean gako diren alderdietan hazkunde- eta inbertsio-politikak egiten badira. Funtsezko alderdi horiek dira, besteak beste, berrikuntza, aktibo ukiezinak, nazioartekotzea eta enpresen tamaina.

Gainera, aldeko baldintzak osatu dira euskal ekonomia nabarmen bultzatzeko, EAEko ekonomia sektore proziklikoetan oinarrituta dagoelako. Sektore horiek egoera latza izan dute azken urteotan, baina, hala eta guztiz ere, gaitasuna dute krisialditik azkar ateratzeko. Txostenean EAEko egoera eta EBko eskualde guztien egoera erkatu dira, eta, horren arabera, EBko 30 eskualdetan dituzten hasierako egitura-ezaugarriak EAEkoak bezalakoak dira (soziodemografikoak, ekonomia- eta teknologia-espezializazioa eta enpresa-egitura).

EAEKO HASIERAKO EGITURA-EZAUGARRI ANTZEKOAK DITUZTEN EUROPAR ESKUALDEEN MAPA



• Egitura-baldintza antzekoak dituzten eskualdeak